

COVID-19aren krisiari aurre egiteko lehen sektorearekin dituen hitzarmenetako bat da

EROSKI-K UDAPAREKIN DIHARDU EUSKAL BASERRI ARABAKO PATATA MERKATURATZEKO

- Bi kooperatibek konpromisoa hartu dute patata hori sailkatu eta hautatzeko, baita EROSKIren EAEko dendetan saltzeko eta balioan jartzeko ere
- Arabako "Agría" motako patata berezia da frijituan jateko; Arabako kooperatibetatik dator, 5 kiloko formatuan eta *Euskal Baserri* marka izenarekin
- EROSKI lankidetzan ari da bere ohiko salmenta kanala galdu duten nekazaritzako eta abeltzaintzako tokiko ekoizleekin haien ekoizpenei irtenbide bat emateko eta soberakinak saltzeko
- Bere hornitzaileekin hitzarmenak egin ditu bildotsak eta barazkiak saltzeko

Elorrio, 2020ko apirilaren 29a.- [EROSKI](#)k akordio bat egin du [Udapa S. Coop](#)-ekin, Arabako patata saltzeko. Patata hori jatorria bermatzen duen *Euskal Baserri* markarekin doa, zeina Nuestra Señora de Ocon, Garlan eta Alavesa de Patatas kooperatibena baita. EROSKI nekazaritzako ekoizle txikiekin eta kooperatibekin egiten dituen hitzarmenetan sartzen da hau ere, eta helburua da COVID-19aren osasun alerta dela-eta beren ohiko salmenta kanala galdu dutenei (errestaurazioa, kolektiboak...) dituzten ekoizpen sailak saltzen laguntzea. Hala, lehen sektoreari laguntzeko lankidetzan sistema bat garatu du, haien soberakinak bere dendetan saltzeko.

"Akordio honen bidez, lehen sektoreari laguntzea da asmoa; izan ere, krisiak kalte egin dio nekazaritzako ekoizle txikiek osaturiko Arabako kooperatiba entitate nagusiei. Hala, laguntza hori Udapa kooperatibaren bitartez emango dugu, Arabako produktu sinboliko hori saltzen digun hornitzaile bikaina bera", esan du Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.

Udapak konpromisoa hartu du "Agría" motako Arabako patata hautatzeko, garbitzeko eta zakuratzeko. Frijituta jateko aproposa da, eta Arabako kooperatibetatik dator 5 kiloko formatuan eta *Euskal Baserri* markarekin. Datozen asteetan, 300.000 kilo inguru egongo dira salgai EROSKIren EAEko dendetan. *Euskal Baserri* berme marka bat da bermatzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

baserrietatik hurbil diren baratze eta ustiategi txikietan ekoitziak izan direla frutak eta barazkiak, hau da, belaunaldiz belaunaldi *baserritarrek* egin izan duten bezala.

EROSKI da UDAPAren bezero nagusia, eta Udapa da Arabako ekoizle bakarra, patata Eusko Label ziurtagiriarekin saltzen duena. *"Oso eskertuta gaude EROSKIrekin. 25 urtetik gora daramatzagu elkarrekin lanean, eta une gogor hauetan sektoreari laguntzen ari zaio, nola eta gure ekoizpenei irtenbideak bilatzen ezohiko egoera honetan"*, azaldu du Udapa kooperatibako zuzendari nagusiak, Alfonso Saenz de Camarak.

Ekoizle txikiagi laguntzeko lankidetzaren prozesua

EROSKIk lankidetzaren prozesu bat garatu du erakundeekin, sindikatu nagusiekin eta sektoreko elkarteekin eta bere hornitzaileetako batzuekin, alderdi guztiei errazteko ekoizpen horiek saltzen direla osasun kalitate eta segurtasun berme guztiekin. Helburua da ekoizle txikiei une gogor hauetan laguntzea, balioa duen produktuei irtenbidea emanez bidezko prezioan. Hitzarmenetako batzuk apiril hasieratik dira martxan, hala nola barazkiena eta bildotsarena.

EROSKIk akordio bat egin du HAZI erakunde publikoarekin, zeina Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen Sailekoa baita, eta Harakai kooperatibarekin, zeinak konpromisoa hartu baitu euskal artzainen bildotsak merkaturatzeko sasoi honetan; horretaz gainera, bere bi barazki hornitzaile nagusiekin ere egin du hitzarmena bilketa eta banaketa lanak errazteko eta hala ekoizle txikien soberakinak operatiba dagoeneko ezagutzen duten hornitzaileen ohiko kanalean integratzeko.

EROSKIk konpromisoa hartua du bere dendan ingurunean elikagaiak merkaturatzeko; horrela, lehen sektore jasangarriago bat bultzatzen du, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eusten dio. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 450 ekoizle txikirekin dihardu kooperatibak 2.000 produktu baino gehiago saltzen. 382 milioiren erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioaren bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore jasangarri eta oso dibertsifikatu bati.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)